

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



IZENBURUA:

Ulermena aktibatzeko metodologia berriak probatzen

EGILEA:

Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)

DATA:

2018/05/07



Aurkibidea

1. Aldahitz proiektua: hizkuntza-ohituren aldaketa aztergai duen ezagutza aplikatua.....	2
1.1. Lankidetzta unibertsitatetik euskara planetara.....	3
1.2. Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen gaineko ezagutza ardatz.....	3
1.3. Lan-munduan oinarria. Urratsak beste esparruetara.....	4
2. Hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko sistema integral bat osatze bidean.....	5
2.1. Eusle metodologia.....	6
2.2. Ulerrizketa metodologia.....	6
2.3. Uler-saioak metodologia.....	7
3. Ulerrizketa: oinarriak eta orain arteko emaitzak.....	8
3.1. Nondik norako nagusiak.....	8
3.2. Lehen esperientzien emaitzak.....	10
4. Bibliografia	11



1. Aldahitz proiektua: hizkuntza-ohituren aldaketa aztergai duen ezagutza aplikatua

Hitzaldi honetan jasotako edukiak 2018ko *Udaltop Jardunaldi* honetako beste hitzaldi batenarekin osagarriak dira; esan liteke, azalpen osoago baten bi zati direla. Pello Jauregi EHUKo irakasleak bigarren egunean egingo duen “*Hizkuntza-ohiturak plano pertsonaletik kolektibora*” da hitzaldi hori, eta bi lan hauek Soziolinguistika Klusterrean Aldahitz ikerketa-proiektuaren baitan lantzen dugun ezagutzaren baitan kokatzen dira.

1.1. Lankidetzaren unibertsitate euskara planetara

2009. urtean lehen urratsak ematen hasi zenetik, Aldahitz proiektuan lankidetzaren izan da jarduteko moduaren ezaugarri nagusi eta beharrezkoetako bat. Lankidetzaren antolatzen gara, besteak beste, hausnarketa teorikoa eta ezagutza zientifikoaren muturra aplikazio eta behar praktikoen beste muturrekin lotzen saiatzeko. Horretarako, proiektuaren oinarrietako bat Soziolinguistika Klusterraren eta EHUren arteko lankidetzaren da. Lankidetzaren horretatik sortzen da proiektuaren garapen teoriko, tekniko eta metodologikorako lehen oinarria. Lehen oinarri hori, euskara planen diseinuan eta aplikazioan goi mailako ezagutza duten erakundearen sare batekin lankidetzaren garatzen da ondoren, aplikazio pilotuetatik hasita, ondoren elkarrekin ezagutza osatzen eta tresnak finkatzen joanaz.

Guztira, Klusterrarekin eta EHUrekin batera, sei dira gaur egun Aldahitz proiektuan lankide ditugun erakundeak eta garapen metodologiko horretan aktiboki parte hartzen dutenak: Ahize-AEK, Artez, Elhuyar eta Emun aholkularitzak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza. Azken bi erakundeok, proiektuan partaidetza zuzena izateaz gain, euren finantziazioa eta babesa ere eskaintzen diote.

Lankidetzaren egitura horri esker, proiektuan aukera izaten dugu sortzen ditugun proposamen metodologikoak proban jartzeko eta hobetzen joateko. Aipatu erakundearen artean osatzen dugun sare zabalak aukera ematen du metodologiaren probak egiteko lokalizazioak modu arin eta eraginkorrean egiteko. Horrez gain, erakunde ezberdinetako teknikarien ezagutza eta eskarmentua oso lagungarria da lehen proba pilotuetatik hasita tresnen gaineko ekarpenak egiteko, ezagutza osatzeko eta emaitzak hobetzen joateko. Hala, proiektuaren lankidetzaren egiturak aukera ematen digu hausnarketa teorikoa eta aplikazio praktikoa lotu ditzakeen egitura bat martxan izateko, eta bide horretatik ari gara, apurka-apurka gaiaren inguruan ezagutza teoriko eta praktikoa bat sortzen.

1.2. Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen gaineko ezagutza ardatz

Hori da Aldahitz proiektuaren ikerketa- eta aplikazio-eremu nagusia: hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen gaineko ezagutzarena. Ezagutza zientifiko eta enpirikoa, batetik, eta horrekin batera ezagutza praktikoa ere, egoera errealeko aplikazioarekin loturikoa.



honetan, nolanahi, ez dugu edozein hizkuntza-ohituren aldaketaren gaineko interesa. Sozialki egoera ahulean dauden hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen testuinguruan kokatzen da gure lana, eta nagusiki euskararen kasuaren inguruan. Hala, bereziki interesatzen zaizkigun aldaketa-prozesuak dira gaztelaniazko erabileratik euskarazko erabileraren norabidean ematen direnak; hau da, sozialki egoera ahulean eta gutxituan dagoen hizkuntzaren norabidean ematen direnak.¹

Horrez gain, arreta nagusia *finkatutako harremanetan* jarria dugu. Berez, proiektuan baliatzen dugun ikuspegi teorikoa kontuan hartuta, hizkuntza-ohituren aldaketa errazagoa izango da, ziurrenik, egoera berrietan, edo harremanak hasi berrietan. Halakoetan jartzen du bere arreta, neurri batean, Katalunian *hizkuntza-mudantzak* aztertzeko zabaldu den lan-ildo interesgarriak (Pujolar et al. 2015). Eraldaketaren edo ikerketa-ekintzaren ikuspegi batetik, aldiz, interesgarriago zaigu ongi finkatuta dauden harremanetan eta hizkuntza-ohituretan gertatzen diren edo gerta litezkeen aldaketa-prozesuen azterketa. Jakinik, harremanetan hizkuntza-ohitura epe nahiko laburrean finkatu ohi dela, eta beraz, askoz zabalagoa dela gizartean finkatutako hizkuntza-harremanen esparrua, eratu berriena baino.²

Bestalde, aipatzen ari garen moduan Aldahitz ikerketan ardatz nagusia hizkuntza-ohituren aldaketen ingurukoa izanik ere, hitzaldi honen izenburuan “ulermenaren aktibazioa” azpimarratu dugu. Hizkuntza-ohituren aldaketa euskararen norabidean erraztu dezaketen metodologiak diseinatu eta inplementatu nahi direnean, uste dugu egokia dela egoera ezberdinak sailkatzen saiatzea, eta bakoitzerako gutxieneko mugarriak edo oinarriak finkatzea, ondoren gutxieneko horietatik aldaketak nola abia daitezkeen aztertzeko. Eta “gutxieneko” horiek finkatzeko garaian ulermena da, gure ustez, aintzat hartu beharreko erreferentzia. Nolabait esateko, gutxieneko horiei dagokionez baldintzak egokiak badira, hortik aurrerakoa –gure kasuan, erabilera areagotzea edo ohiturak aldatzea– dinamikak berak eragin dezake, neurri handiagoan edo txikiagoan. Alde horretatik, uste dugu “ulermenak aktibatzea” helduleku edo ikuspegi egokia dela euskarazko erabilera areagotu nahi denean (edo ohiturak aldatu, euskararen norabidean). Eta hori da, nolabait, Aldahitz proiektuko metodologiekin ere bilatzen duguna.

1.3. Lan-munduan oinarria. Urratsak beste esparruetara.

Aldahitz proiektuaren lehen harria jarri zuen ikerketa familia-transmisioaren eremuan egin genuen (Jauregi et al. 2009), baina geroztik, proiektuaren garapen ia osoa lan-munduan egiten ari gara: erakunde publikoen eta enpresa pribatuen testuinguruan, lankide talde jakinekin, eta normalean euskara planak garatzen ari diren edo garatu izan dituzten erakundeetan.

¹ Gaztelaniatik euskarara esan dugun bezala, berdintsu balioko luke frantsesetik euskarara kasurako ere, baina praktikan, momentuz ikertu ditugun kasu guztiak gaztelaniatik euskararakoak izan dira, frantsesaren kasurako aukera ere zabalik den arren.

² Aipatu berri dugun hau, nolanahi ere, orain arteko Aldahitz proiektuaren bilakaerarekin lotua da, eta ez dugu uste bi esparru horietan hizkuntza-ohituren aldaketaz sor daitezkeen ezagutza (finkatutako harremanetan edo eratu berrietan) elkarrengandik erabat berezia izango denik. Aldiz, fenomeno berdin baten une ezberdin gisa uler daitezke gehiago (ohituren eratzea, finkatzea, aldatzea...).



ondorengo atalean aipagai izango ditugun metodologiak, tresnak, ikerketak eta gainerakoak eguneroko lanean lankideekiko harremaneko testuinguruan baliatzeko sortu dira, eta esparru horretan egiten ditugu probak, neurketak eta gainerakoak.

Nolanahi ere, hizkuntza-ohituren aldaketaren gaiaren inguruan urtez urte sortzen ari garen ezagutzak ez du zertan eskusiboki lan-munduari begirakoa izan behar, jatorri eta helburu nagusia horretan dituen arren. Eta, Aldahitz proiektutik atseginez ikusten ari gara nola, 2015. urtean *Eusle metodologiaren* oinarriak eta ikerketaren datuak argitara eman genituenetik, hainbat ekimen sortu izan diren han eta hemen, *Eusleren* ildoko planteamenduak beste esparru eta egoera batzuetara egokitu dituztenak. Pare bat aipatzearen, batetik aipatuko genuke, hezkuntza arloan, ikasleen euskarazko erabilera areagotu nahian, hainbat irakaslek bere egin dituztela aipatu metodologiaren planteamenduak eta euren errealtatera egokitzuz aplikatu dituztela hainbat ikastetxetan. Bestalde, eta lehenago Pello Jauregi irakasleak adierazi izan duen moduan, 2016an Lasarte-Orian *Ahobizien* eta *Belarripresten* inguruan eratu zen dinamika, gerora zabalpenez *Euskaraldiaren* oinarri metodologikoak jarri duena, Aldahitz ikerketaren baitan landuriko oinarri teoriko eta planteamendu metodologikoen egokitzapen eta garapen gisa sortu zen. Ondorengo urteetan, beraz, Aldahitz proiektuaren ardatzak lan-munduan jarraituko du, baina bertan sorturiko ezagutzak eta lortutako emaitzek aplikazioak izan ditzakete beste esparru batzuetan ere.

2. Hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko sistema integral bat osatze bidean

Azken urteotan, Aldahitz proiektuko metodologiaren eta lan-ildoaren garapenean, halako "ikuspegi integral" batekin ari gara lanean, azken emaitza gisa bilatzen duena, erakunde edo lantoki batean lankideen hizkuntza-ohiturak euskararen norabidean aldatu nahi direnean, horretarako tresneria orokor edo integral bat eduki ahal izatea.

Lantzen ari garen tresneria metodologiko orokor horrek osagai ezberdinak izango ditu, bakoitza banaka aldeztu aurretik proban jarria, ikertua eta findua. Horrez gain, osagai edo metodologia horiek elkarren artean osagarri izateko diseinatzen ari gara, lantegietan urratsak eman ahala batetik bestera modurik ahalik eta naturalenean igarotzeko asmoarekin, eta nolabait, logika edo ikuspegi berdin baten baitan lan eginaz. Guzti horrekin, asmoa da, behin sistema integral hori osatuta dugunean, horrek aukerak ematea kasuan kasuko ezaugarrien eta beharren arabera, metodologia horien erabilpena modu ezberdinean konbinatzeko, erregulatzeko edota haien osagaiekin jokatzeko (iraupenari dagokionean, intentsitateari dagokionean, parte hartzen duten kideei dagokionean, etabar).

Horrela, behin metodologiaren "sistema integral" hori behar bezala garaturik dugunean, horrek aukera emango du esperientzia luzeagoak eta konplexuagoak antolatzeko, erakundeak bere osotasunean hartuko dituztenak. Halako testuinguru zabalagoetan, lankide-talde ezberdinen arteko elkarrekin ere sartuko dira jokoan, orain arte Aldahitz proiektuan nagusiki landu dugun ikuspegi mikro eta talde txikikoa gaituz, eta *erakundeen kultura* edota esperientzien inguruko komunikazioa bezalako aldagaiek pisu handiagoa hartuz.



2.1. Eusle metodologia

Hizkuntza-ohiturak euskararen norabidean aldatzea errazteko sistema integral horren garapenean, erreferentzia nagusia *Eusle metodologia* da. 2012an sortu genuenez geroztik hainbat kasutan neurtu eta berretsi ahal izan dugun moduan, metodologia hori eraginkor suertatzen ari da talde batek bere barneko harremanetan halako aldaketak egin nahi dituenean. Talde-erabakia oinarri, *eusle* rola jokatzeko duten lankideen euskarazko jokaerak berriak zilegitasuna eta zentzua hartu ohi ditu, eta esperientziaren testuinguru horretan jokaera *urratzaileen* eta *egokitzzaileen* dinamikak indarra du lankideen artean urtetan gaztelanien finkatutako hainbat hizkuntza-ohitura euskararen aldera mugiarazteko (Jauregi et al. 2015 eta 2017).

Nolanahi ere, euskara planak garatzen aritu den edonork badaki, lan munduko egoeratan, ez direla beti eta toki guztietan ematen baldintza egokiak *Eusle metodologia* aplikatu ahal izateko. Bistan da, lankide talde guztietan ez dago halako dinamikei heltzeko behar adinako ekimen edo interesik,³ baina horrez gain, kasu guztietan ez da betetzen eusle metodologiarako ezinbestekoa den baldintza bat: taldeko kide guztiak izatea gai euskaraz “elkarrizketa arrunt” bat ulertzeko.

Hala, lantoki askotan badira egoerak non, euskara ulertzeko eta hitz egiteko ongi moldatzen diren lankideekin batera, badiren lankideak, euskaraz nolabaiteko ulermen maila bat badutenak, baina mugatua. Guk “tarteko” ulermen maila dutela esan ohi diegu halakoei. Labur esateko, halako lankideek zailtasunak dituzte euskarazko elkarrizketa arruntak ulertzeko, baina aldiberean, solaskideek “euskara erraza” egiten badiete, gehiena ulertzeko gauza izaten dira. Irizpide estandar bat jartze aldera, A2 mailako ulermena hartzen dugu erreferentzia modura “tarteko” kasu horietan.

Eta, zer gertatu ohi da, normalean eta praktikan, gure lantokietan euskaraz halako “tarteko” ulermen maila duten lankideekin? Salbuespenak salbuespen, esango genuke normalean gainerako lankide euskaldunek gaztelaniaz (edo frantsesez) garatu ohi dutela haiekiko laneko harreman formala zein informala; praktikan, euskaraz batere jakingo ez balute bezala. Eta noski, ondorioz, halako lankideen euskarazko gaitasunak ere ez du normalean hobekuntza handirik ezagutzen urtetan zehar, nahiz eta, kasu batzuetan, lantokian bertan euskaraz aritzeko eta euren gaitasunean hobetzeko aukerez inguraturik egon.

2.2. Ulerrizketa metodologia

Gorago aipaturiko “sistema integral” horren garapenean, euskaraz “tarteko” ulermena duten lankide horiei begira garatu dugu, hain zuzen, sistemaren bigarren osagaia: *Ulerrizketa metodologia* izenekoa.

³ Bai *Eusle metodologia* eta bai sistema honen baitan garatzen ari garen beste bi metodologiak ere borondatezkoak dira, eta funtsezkoa dute, gainera, ezaugarri hori. Beraz, hemen aipagai dugun “sistema integral” horren aplikazioa beti dago baldintzatua metodologiak aplikatu ditzaketen kideen borondatearen arabera. Horretaz azalpenik nahi duenak jo beza *Eusle metodologiaren* inguruan argitaratu ditugun lanetara (Jauregi, Suberbiola 2017; Jauregi, Suberbiola 2015). Lan honetan ordea, ez gara sartuko aspektu horietan.



Metodologia horren bitartez, ulerrizketa “unitate” edo talde txiki bat eratzen da lantoki batean euskaraz “tarteko” ulermena duen lankide bat erdigunean duena, eta haren hurbileko lau lankide euskaldunekin hizkuntza-praktika berri bat abiatzen duena. Hala, *Ulerrizketa metodologiak* martxan jartzen du dinamika berri bat lankide horien artean, atea zabaltzen diona euskaraz ulermen mugatua duen lankide harekiko euskarazko erabilerari.

Euskara erraza eta egokitua erabiliz, baldintzak sortzen dira euskaraz “tarteko” ulermena duen kideak euskarazko *input ulergarria* jasotzeko egunero lankide horien aldetik. Modu horretan, baldintzak sortzen dira lankide horrek bere euskarazko ulermenean aurreratu ahal izateko, eta baita ere, lankide talde horretan zenbait hizkuntza-ohitura gaztelaniatik euskarara aldatzen joateko ere.

Gorago aipaturiko sistema integralaren ikuspegira itzuliz, beraz, lankide talde batean zuzenean Eusle *metodologia* aplikatzeko baldintzarik ez dagoenean, eta horren arrazoia denean talde horretako kide gutxi batzuk, euskarazko ulermen ona ez, baina “tartekoa” badutela, *Ulerrizketa metodologia* aplikatzeko baldintza egokiak egon litezke. Eta metodologia hori aplikatuta, baldintza egokiak egon litezke ondoren *Eusle metodologia* aplikatu ahal izateko. Hau da: *Ulerrizketak* balio dezake *Euslerako* baldintza egokiak sortzeko.

Modu sinplifikatuan azaltzeko, “tarteko” ulermena duten kide horien eta inguruko euskaldunen eguneroko praktikari esker, lehenengoan euskarazko ulermenak hobera egingo du, eta aldiberean, haien artean euskaraz aritzeko ohitura finkatzen joango da. Hala, zailtasunak zituzten kide horiek laneko elkarrizketa arruntak euskaraz ongi ulertzera iristen diren neurrian, aukera zabaltzen da sail osoan edo talde zabalagoan *Eusle* dinamika bat abiatzeko, hori eragozten zuen zailtasuna gaindituta egonik.

Hor ditugu, beraz, osatzen ari garen sistema integral honen lehen bi osagaiak: *Eusle metodologia*, aldaketarako tresna nagusi gisa, eta *Ulerrizketa metodologia*, lehenengorako prestaketa edo aurretiazko urrats modura.

2.3. Uler-saioak metodologia

Badira, ordea, beste hainbat kasu lantokietan non, lankide-talde batean euskarazko elkarrizketa arruntak euskaraz ulertzen ez dituzten lankideek ez duten “tarteko” ulermen-maila hori, apalagoa baizik. Badira lankideak euskara oso gutxi ulertzen dutenak, eta baita batere ulertzen ez dutenak ere. Halako lankideei begira ari gara lantzen gorago aipatutako sistema integral horren hirugarren osagai nagusia: *Uler-saioak metodologia*. Zehatzago esan, bi urratsetan berezitako metodologia sortu dugu: *Uler-saioak 1* eta *Uler-saioak 2*.

Uler-saioak metodologia da beraz, sistema horretan, euskarazko ulermen-mailarik apalena duten lankideei begirako urratsa (zerotik bertatik hasita). Beraren bitartez, eta arreta nagusia ulermena garatzean jartzen duen didaktika baliatuz, lankideek aukera dute euskarazko “tarteko” ulermen-maila horretara iristeko. Zentzu horretan, beraz, izango litzateke tresna bat *Ulerrizketa metodologiaren* aurretiazko urrats gisa erabili daitekeena. Nolanahi ere, Aldahitz proiektuaren baitan, 2018. urte honetan gure arreta nagusia *Ulerrizketa metodologian* dago eta datorren urtean emango diogu lehentasun nabarmenagoa *Uler-saioen* atalari. Era berean, lan honetan ere ez dugu gehiago sakonduko *Uler-saioak metodologiaren* nondik norakoetan.⁴

⁴ *Ulerrizketa metodologiarekin* bezala, *Uler-saioak metodologiarekin* ere Aldahitz proiektuan 2016 eta 2017. urteetan garatu ditugu esperientzia pilotuak. Horien inguruan jaso eta aztertu dugun informazioa barne mailakoa



Laburtuz, beraz, hau izango litzateke puntu honetan adierazitakoaren ideia orokorra: Hizkuntza-ohituren aldaketa euskararen norabidean eman dadin errazteko sistema integral edo orokor bat ari gara garatzen azken urteotan Aldahitz ikerketan, hiru osagai nagusi dituena: lehen *Eusle metodologia*, talde batean kide guztiek euskarazko ulermen ona duten egoeratan aplikatzeko. Bigarrena, *Ulerrizketa metodologia*, kide batzuk “tarteko” ulermen maila dutenean baldintza egokiak sortzeko aukera emango diguna. Eta hirugarrena, *Uler-saioak*, euskaraz oso gutxi edo batere ulertzen ez duten kideak daudenean, prozesua abiatzeko lehen urratsa litzatekeena.

3. Ulerrizketa: oinarriak eta orain arteko emaitzak

Gorago azaldu dugun hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko sistema horren hiru osagaien artean, *Eusle metodologia* da gehien garatu duguna, eta ziurrenik Udaltop eremuko teknikari, aditu eta ikerlari askorentzat ere, bera da ezagunena. Dagoeneko hainbat forotan emana dugu metodologia horren atzean dauden oinarri teorikoen berri, hala nola, metodologiaren ezaugarriena, zein ikerketa bidez metodologia horrekin lorturiko emaitzena. Eta, ezagutzen ez duenak ere, argitaraturiko bi lanetan behar adina informazio aurkituko duelakoan gaude (Jauregi et al. 2015 eta 2017). Ez gara, hortaz, hemen metodologia horri buruz luzatuko.

3.1. Nondik norako nagusiak

Bestalde, gorago aipatu dugun moduan, lan honetan ez gara *Uler-saioak metodologiari* buruzko xehetasunetan sartuko. Bai nahi genituzke, aldiz, *Ulerrizketa metodologiari* buruzko nondik norako nagusi batzuk eskaini, horretan interesa izan dezaketenentzat.

Metodologia horren diseinua eta lehen garapena 2015. urtean zehar egin genuen Aldahitz ikerketaren baitan, eta esperientzia pilotuak garatu ditugu lan-munduko testuinguruan 2016 zein 2017. urteetan zehar, bai eta emaitzen azterketan zein diseinuaren egokitzapenen lanketan aritu ere.

2018. urtean ere *Ulerrizketa* esperientzia berrien antolaketarako urratsak emanak ditugu dagoeneko. Urtez urte metodologian egokitzapen txikiak egin ondoren, dagoeneko nahiko finkatutzat eman dugu metodologia, eta aurreikuspena da urte honen amaieran metodologia horren oinarriak, deskribapena eta ikerketako lehen datuak argitaratu ahal izatea Aldahitz proiektuaren baitan. Horien aurrerapen gisa, jarraian deskribatzen dira metodologia horren ezaugarri nagusiak.

da oraingoz, orain arteko aplikazioek izaera pilotua duten neurrian. Nolanahi ere, halakoetan interesa duenak Aldahitz Ikerketako lantaldera jo dezake informazio osatuagoaren bila.



Ulerrizketa izena eman diogu elkarrizketa molde berezi bati, eta elkarrizketa guztiek bezala bi kide edo solaskide ditu. Lehenak euskaraz hitz egiteko erraztasuna du, eta bigarrena egoera nahasi batean dago: batetik, euskaraz esandakoa uler dezake baldin eta modu errazean eta poliki hitz egiten bazaio, baina, bestetik, ez da gauza sentitzen euskaraz egiteko.

- Euskaraz ongi dakien kideari *ulergile* esaten diogu, euskara erraza erabiliz eta poliki hitz eginez saiatzen delako mezu ulergarriak egiten.
- Euskaraz ulertzen duen kideari *ulertzaile* esaten diogu, jarrera zabala eta aktiboa duelako euskaraz ulertzeko beste kideek euskaraz egiten diotenean.

Batek euskara ulergarria egiteko ahalegina egiten duelako, eta besteak ulertzeko ahalegin argia egiten duelako esaten diogu *ulerrizketa* elkarrizketa berezi honi. *Ulerrizketak*, orduan, ahalegina eskatzen dio solaskide bati zein besteari. Ordea, ahalegin hori eramangarri bihurtzeko, bost orduko formazio saioa emango zaie solaskideei, eta bertan ikasi eta probatuko dute nola jokatu erosotasunez *ulerrizketan*. Ikasitako trikimailuak praktikaturaz, ohitura har daiteke nahiko denbora gutxian, eta hala eginez gero, *ulerrizketak* oso jarduera naturalaren tankera hartzen du, eta edozein gaiz hitz egiteko eta edozein momentutan erabil daiteke.

Ulerrizketan ulertzaileak erdaraz hitz egin dezake, berak hala erabakitzen duenean, esaterako euskaraz hitz egiteko oso mugatuta sentitzen denean. Hori gertatzen denean, ordea, *ulergileak* eutsi behar dio berak ere erdaraz erantzuteko joerari, eta euskaraz jarraitu behar du, jakitun kideak ulertuko diola euskaraz. Beraz, *ulerrizketak* eskatuko du batzuetan, *ulertzaileak* erdaraz eta *ulergileak* euskaraz hitz egitea: hori da *bi hizkuntzetako elkarrizketa*.

Hasieran arraroa izaten da bi hizkuntza erabiltzea elkarrizketa berean, baina praktikak aldatzen du arrotz sentsazio hori eta ohiko bihurtzen. Askok laguntzen du praktikan ikusteak komunikazioa horrela aritzeagatik ez dela kaltetzen.

3.2. Lehen esperientzien emaitzak

Gorago aipatu bezala, aurreko bi urteetan garatu ditugu dagoeneko *Ulerrizketa metodologiaren* lehen esperientzia pilotuak lantokietan. Esperientzia horien helburu nagusia metodologiaren ideia nagusia aplikatzen hastea izan da, eta batez ere haren *eramangarritasuna* eta *egingarritasuna* aztertzea, kontuan izanik, beti ere, lan-testuinguru batean garatzeko diseinatzen ditugula halako metodologiak.

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Orain arte garatu ditugun Ulerrizketa esperientzietatik hemen azpimarra ditzakegun emaitzak hiru dira, batez ere: alde batetik, metodologia baldintza egokietan eta irudikatutako irizpideekin garatu denean partaide gehienentzat egingarria izan dela (zailtasun eramangarria). Bestetik, modu egokian garatu denean, (oso) baliagarria suertatu dela *ulertzaileentzat* euren ulermenean aurreratzeko (denboran esperientzia mugatuak izan diren arren, gehienak sei aste ingurukoak), eta noski, metodologia aplikatu den lantalde txiki horretako kideen arteko hizkuntza-ohituretan ere eragin nabarmena izan duela, ordura arte (gehienbat) gaztelaniaz egiten zizaien kide bati euskaraz hasi zaizkion neurrian. Hirugarrenik, bestalde, zenbait esperientzietan ikusi dugu nola metodologiak proposaturiko irizpideak ez diren ongi gauzatzera iritsi. Kasu batzuetan dinamika behar bezala azaltzera iritsi ez garelako edo ongi ulertu ez delako, eta besteren batean, esperientzia garatzeko abiapuntuzko baldintzak egokiak ez izan arren, horretaz berandu jabetu ginelako.

Emaitza horietan oinarrituz, esan bezala, egokitzapenak egin dira 2018ko *Ulerrizketa metodologiaren* ezaugarrietan eta aurreikuspena da urte honen amaieran diseinua finkatua izatea eta hari buruzko lehen zabalkundeei ekitea.

Zentzu horretan, eta *Euskaraldiaren* testuinguruan, aipatzekoa da, lotura zuzena duela *Ulerrizketa metodologiak* han eta hemen *Ahobizien* eta *Belarripresten* artean sortuko diren egoerekin. Izan ere, *Belarriprest* gisa definituta dagoen figuraren baitan sar daitezke euskaraz ongi ulertzen duten kideak eta baita erdizka ulertzen dutenak edo “tarteko” ulermena dutenak ere. Kasua bigarrena denean (eta pentsa izatekoa da halakoak asko izango direla) *Ahobizien* eta *Belarriprest* horien artean suertatuko den egoera da, hain zuzen ere, *Ulerrizketa metodologian* lantzen ari garena.

Pentsa izatekoa da, beraz, metodologia honen inguruan garatzen ari garen ezagutza eta Aldahitzeko erakundeen artean biltzen ari garen eskarmentua baliagarri izango direla aurrera begira hainbat ekimenetan aplikatzeko.



4. Bibliografia

- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2009). "Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean. Ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak", *BAT aldizkaria* 71, 177-191 or.
 - o (2015). *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra
 - o (2017). *Aldahitz Ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra
- Pujolar, J., Puigdevall, M. (2015) "Linguistic mudes: how to become a new speaker in Catalonia", *IJSL* 2015; 231, pp. 167-187.